

BALIO PROPOSAMENA

Identifikatu dogun arazoa, gure gizartean bakardadean bizi edo bakarrik sentitzen diran hainbat pertsona dagozala da. ONCE Fundazioak eta AXA Fundazioak egindako ikerketa baten arabera, Euskal Herrian bizi dan helduen biztanleriaren % 14,5ak bakarrik sentitzen da gaur egun, eta % 12,1ek bakardade kronikoa pairatzen dau. Aipatutako arazoa Nazio Batuetako 3. Garapen Jasangarrirako Helburuarekin lotzen dogu, “Osasuna eta ongizatea”. Helburu honekin gizartearen ongizatea hobetu nahi da.

Arazo honi konponbidea emateko “ElkarEkin” proiektua sortu dugu. Gure helburua bakardadea sentitzen duten eta sentitu nahi ez duten nagusiei zerbitzu bat eskeintzea da. Pertsonen arteko hartu emanak, laguntza eta partekatzeke espazioak eta uneak sortzea dugu helburu, gure inguruan bakarrik sentitzen diren pertsonen zaletasunak eta interesak partekatzeke eta deskubritzeke espazioak sortuz. Aldi berean, gazteei egunero bizitzarako eskolan ikasten ez diren ezagutza baliagarriak ikasteko aukera ere eman nahi diegu. Horrela Adin ezberdinen arteko komunitate bat sortu nahi dugu.

Gure zerbitzuak Euskal Herriko Udaletako Gizarte arduradunei proposatuko dizkiegu. Asteaz zehar hainbat ekintza egingo dira udalerriri horietako bakoitzean hala nola, sukaldatzea, jostea, etxeko konponketa txikiak egitea, besteak beste. Tailer hauen bitartez espazio berean nagusiak zein gazteak batu nahi ditugu, bakardadeari erantzuteke eta beste alde batetik pertsonen ezagutzak partekatzeke. Ekintza hauen ostean, egindakoa partekatzeke aukera zabalduko da. Ekintza hauek Goi Mailako Heziketarako zentroetan edota udalak eskeinitako lokaletan egingo ditugu.

Nagusiek gazteei jardura horiek irakatsiko dizkiete eta horrela elkarrekin denbora pasatuko dute ikasten eta harreman berriak izaten dituzten bitartean, berdinen artean zein belaunaldi ezberdinen artean.

Tailer eta ekintzen katalogo bat osatuko dugu asteaz zehar egin ahal izateke eta katalogo honetatik Udalek aukeratu ahalko dituzte zein ekintza burutuko diren udalerrian: Sukaldaritza, Brikolajea, Jostungintza, gantxiloa, Elektrizitatea, iturgintza...

Erabiltzaileek aldeaz aurretik izena eman beharko dute eta parte hartzeagatik ordainketa sinboliko bat egingo dute.